

22. ORDENANTZA

Ordenantza fiskala, Udal elementuak erabiltzeko prezio publikoa arautzen duena

Oinarria

1. artikulua. Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 28. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren babesean ezarri da ordenantza honetako prezio publikoa.

ZERGAPEKO EGINTZA

2. artikulua.

1) Pertsona natural edo juridikoei Udalarenak diren elementuak lagatzea, horra zergapeko egintza.

2) Elementu horiek lagatzen ahalko dira Udaleko zerbitzuetarako behar ez direnean.

3. artikulua. Kultur ekintzetan Udala laguntzaile denean eta antolatzaileei elementu horiek ematen dizkienean ez da prezio publikorik ordaindu beharko.

SUBJEKTU PASIBOA

4. artikulua. Ordenantza honetako prezio publikoa ordaintzera behartuta daude 2.1. artikuluan aipatutako tresna edo materialak erabiltzen dituzten pertsona edo entitateak.

KARGA-OINARRIA

5. artikulua. Lagatako elementuak zenbat denboran erabili diren, horren arabera izanen da.

6. artikulua. Erabilera denbora egunetan zenbatuko da, tarifetan zehazten denaren arabera, materiala udal biltegi edo parkeetatik ateratzen denetik hasi eta itzultzen den arte. Zatikia beti egun osotzat hartuko da.

TARIFAK ETA KUOTAK

7. artikulua.

- 1) Aplikatzeko tarifak ordenantza honen eranskinean agertzen dira.
- 2) Lagatutako elementuak udal langileen bidez eta Udalaren bitartekoekin muntatu eta garraiatzen badira, kuota zehazterakoan elementu horiek erabiltzeko tarifari muntaiarengatik eta garraioarengatik dagokiona gehituko zaio, betiere kontuan harturik horretan aritzen diren langileak, kategoria, muntatu eta garraiatzeko erabili diren bitartekoak eta ordu kopurua.
- 3) Material suntsigarriak lagatzen direnean, tasari haien kostua gehituko zaio.
- 4) Lagapen hori dohainik egiten ahalko da, baldin eta hartzaileak erakundeak badira eta haiekin Udalak harreman estua badu aholkularitza teknikoan edo azpiegiturako materialen lagapenean.

KUDEAKETA ARAUAK

8. artikulua. Material horiek eskuratzeko interesa duten partikularrek idatziz eskatuko dute, beharrezkoa dutena eta erabiltzeko denbora argi azalduz.

9. artikulua. Udal zerbitzu teknikoei komenigarria iruditzen zaienean, fidantza bat eskatu ahalko da lagatutako materialetan gerta daitezkeen haustura eta kalteei erantzuteko.

10. artikulua. Lagatutako apaindura elementuen erabilpen faseetan edozein motatako istripuak gertatuko balira, haien erantzukizuna ez legokioke Udalari.

11. artikulua. Lagatutako materialek izaten dituzten hausketa eta kalteak erabiltzaileen gain egonen dira. Harreraren arduradunek kalteei buruzko oharra jasoko dituzte, kopia bat erabiltzaileei eman eta jatorrizkoa zerbitziburuei igorriko diete. Haiek egingen dute behar den tasazioa.

12. artikulua. Lagatutako materiala itzuli izanaren frogagiria eta, baldin badago, kalteen oharra, kasuan kasuko udal bulegoak jasotzen dituenean, likidazio proposamena igorriko zaio Ogasun Zuzendaritzari, onetsi eta kobratzeko izapideak egin ditzan.

13. artikulua. Materialak eta elementuak nahi erara emanen ditu Udalak, eta ukapenaren aurka ezin izanen da erreklamaziorik egin.

14. artikulua. Udal aldarnioak eskuratzeko alde zuzenetik fidantza bat jarri beharko da kalte eta hondaketei erantzuteko. Galdu egingen da, lagapen epea edo horren luzapenak gaituzten badira. Horren zenbatekoa lagapenari dagokion tasaren %10 izanen da.

2011KO TARIFEN ERANSKINA

	ERROLDATUAK	ERROLDATU GABEAK
I. epigrafea.-Langileak		
Kontzeptu honengatik aplikatu beharreko tarifak zerbitzua egiten den garaian indarra duten soldatei dagozkienak izanen dira, gehi %35, osasun laguntzagatik, Montepioari Udalak egiten dion ekarpenagatik eta pentsioengatik.		
II. epigrafea.-Materialak		
II.1.-Fokoak: oin eta egun bakoitzeko + hausketen ordainketa, halakorik bada.	86,00	128,00
II.2.-Zeramika labea:		
5 ordu baino guttiagoko labealdiak	17,00	26,00
5etik 10 ordura bitarteko labealdiak	26,00	39,00
Zeramika labea Kultur Etxean egiten diren zerak egosteko baizik ez da erabiltzen ahalko		
II.3.-Beirateak: zenbatekoa (1etik 30 egun bitarte) + hausketen ordainketa, halakorik bada:	423,00	634,00
III. epigrafea.-Oholtzak		
III.1.-Oholtza modulua (2x2 metros) zenbatekoa egunean	14,00	20,00
III.2.-Oholtza modulua (1,8x3,5 metro) zenbatekoa egunean	22,00	32,00
III.3.-Oholtzaren estalkia (4 x 7 metro.) zenbatekoa egunean	83,50	125,50
III.4.-Oholtza modulua (1x2 metro) zenbatekoa egunean	9,00	13,00
Aurreikusi ez diren kasuak tarifako antzekoekin parekatuko dira, kontuan hartuz indarra duten kostu ofizialak edo merkatukoak.		
Tarifa guztiak denbora unitateei edo unitateen zatiei dagozkie.		